



GETXO UDALERRIKO GIZARTE KOHESIOAREN ARLOAN DIHARDUTEN ERAKUNDEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2026ko DEIALDIA

SARRERA

Getxoko Udala tokiko administrazio publiko bat da, herritarren zerbitzura dagoena eta bere jarduera garatzen duena:

- Herritarrekin eta gizarte-eragileekin parte hartuz eta harremanetan jarritz;
- Eguneroko bizitzan eragina duten oinarriko premiei erantzunez.
- Getxotarrei ongizate indibidual eta kolektibo hobea lortzen lagunduko dieten bizi-baldintzak ahalbidetuz.

Jarduera hori herritarren aniztasuna kontuan hartuta egiten da, egoera sozial, ekonomiko, sexu, adin, jatorri, dibertsitate funtzional eta abarrengatik egoera txarrean dauden kolektiboak arreta berezia eskainiz.

Gizarte Kohesioaren arloa Gizarte Zerbitzuen eta Esku-hartze Komunitarioko unitateek osatzen dute (Boluntariotzaren Sustapena, Immigrazioa eta Kulturartekotasuna, Adikzioen Prebentzioa, Hezkuntza, Garapenerako Lankidetzak, Berdintasuna, Gazteria eta Zahartze Aktiboa).

Esku-hartze komunitarioaren helburua da herritarrak, hirugarren sektorea eta erakunde-sarea inplikatzeko komunitate aktibo, inklusibo eta solidarioaren eraikuntza. Zer da ekintza komunitarioa?

- Parte-hartzailea, pertsonak deitzen dituen eta pertsonengan eragitea bilatzen duen ekintza den heinean, haien ahaldundutze aktiboa indartuz.
- Lankidetzakoa, ekintza publikoaren eta gizarte zibilaren eta hirugarren sektorearen autoantolaketa arteko sinergia bilatzen duen neurria.
- Eraldatzailea, pertsonen inguruneetan edo eragiten dieten gizarte-egituretan egiturazko aldaketak eragin nahi dituen neurria.

Gizarte Kohesioaren arloak bultzatzen duen prozesuetako bat asoziazionismoari eta boluntariotzari laguntzea da, parte-hartzea eta elkatasuna sustatzen lagunduko duten dirulaguntzen bidez.

2023-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 4.1 artikuluan jasotzen den Getxoko Udalaren diru-laguntza jardura osoaren misioan eta izateko arrazoian honako hau jasotzen da: "gure udalerriko gizarte zibil egituratuak interes konkurrentea duten udal-kudeaketako eremuetan parte har dezan bultzatzea, sustatzea eta indartzea, elkarre-sareak garatutako interes orokorreko proiektuak eta lana ekonomikoki lagunduz".

Hauek dira jarduketaren printzipio orokorrak, Plan Estrategikoaren funtsezko elementuak eta dirulaguntzen arloko udal-kudeaketa arautzen dutenak:

- a) Publizitatea eta lehia.
- b) Objektibotasuna funts publikoak esleitzeko prozesuan, proiektuak hautatzeko irizpideak eta horien haztapena finkatuta.
- c) Berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- d) Gardentasuna baliabide publikoak esleitzeko, emateko eta emaitzak argitaratzeko prozesuan.
- e) Eraginkortasuna helburuak betetzean, diru-laguntzen jarraipena eta kontrola egiteko prozedura ezarrita.
- f) Baliabide publikoak eraginkortasunez esleitu eta erabiltzea.

1. artikulua: HELBURUA ETA XEDEA

Deialdiaren xedea da 2026ko dirulaguntzak emateko arauak zehaztea, udal aurrekontuetan ezarritako muga barruan. Dirulaguntzak emango zaizkie nortasun juridikoa duten, irabazi asmorik ez duten eta Getxo udalerrian jarduerak egiten dituzten entitateei, elkarteei edo fundazioei (aurrerantzean, erakundeak). Erakundeak gizarte kohesioaren arlokoak izango dira, gizarte kohesioa osatzen duten edozein esparrutakoak:

- Gizarte eraldaketarako heziketa eta sentsibilizazioa;
- Haurrak eta gazteak;
- Zahartze aktiboa;
- Balioetan oinarritutako heziketa;
- Mendekotasunak prebenitzea;
- Gizarte Zerbitzuak;
- Berdintasuna;
- Kulturartekotasuna;
- Belaunaldiartekotasuna;
- Dibertsitate funtzionala eta/edo desgaitasuna;
- Solidaritatea eta kooperazioa.

Honako hau lortu nahi da:

- Udalerrian gizarte kohesio handiagoa hauspotzea.
- Udalerrian asoziazionismoa sustatzea eta bultzatzea.
- Gizarte kohesioaren arloan programak, prestazioak eta jarduerak garatzeko gizarte ekimenari laguntzea.
- Getxoko Udalaren eta gizarte erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea.

2. artikulua: ARAUBIDE JURIDIKOA

Eskabideak ebazteko prozedurak honako arau hauek bete beharko ditu:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (testu bateratua eta geroko aldaketak).
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

3. artikulua: ERAKUNDE HARTZAILEAK

Erakunde hartzaile suertatzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Irabazteko asmorik ez izatea.

- 2. Erakunde gisa erregistratuta egotea** dagokion erregistro publikoan. Deialdi hau onetsi den egunean erakundeak gutxienez **urtebeteko antzintasuna** izan beharko du.

3. Egoitza edo ordezkaritza udalerrian duten erakunde guztiak **Getxoko Erakundeen Erregistroan** inskribatuta egotea.
4. **Gizarte kohesioaren arloko jarduerak garatzea.**
5. **Proiektua Getxon garatzea**

Deialdi honetan erakunde onuradun suertatzeko ezarritako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera bete behar dira, eta dirulaguntzaren indarraldian zehar mantendu.

Proiektuak **partzuergoan** garatu nahi dituzten pertsona juridikoen elkarteak erakunde onuradunak izan daitezke. Elkarteko kide guztiek arestian aipatutako baldintzak bete beharko dituzte.

Eskabidean eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz adierazi beharko dira elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, haiek ere erakunde onuraduntzat hartuko baitira.

Hala egin ezean, ulertuko da elkarteko erakunde guztiek denen artean erantzungo dietela hartutako konpromisoari, eta aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko baliokidea jasoko dute. Nolanahi ere, **elkartearen erakunde-ordezkari bat izendatu beharko da** eta ahalorde askietsiak izango ditu, erakunde onuradun gisa elkarteari dagozkion eskakizunak betetzeko.

Ezin dira dirulaguntza hauen onuradun suertatu hemen jasotako egoeraren batean dauden erakundeak: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistari gabeko bizitzarako Legearen testu bategina onetsi duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikulua eta Estatuko arautegia, hala nola Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, sexuan oinarritutako diskriminazioa barne:

- a. **Zigor administratiboa edo penala jaso dutenak sexuan oinarritutako diskriminazio jardunbideak edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatiko jardunbideak izan dituztelako**, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jaso bezala.
- b. 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan, **berdintasun planik** ez izatea, indarrean dagoen araudiak hala eskatzen dienean.
- c. 50 langile baino gehiagoko enpresetan, **sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak** ezarri dituztela egiaztatzen badute, Estatuko legeriak ezarritako baldintzetan.

4. artikulua: ERAKUNDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Erakunde onuradunek eskubidea dute emandako zenbatekoa kobratzeko, deialdian eta emakida-ebazpenean ezarritako moduan eta baldintzetan. Halaber, Getxoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 10. artikulua.

Dirulaguntzen erakunde onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) **Aurreikusitako** proiektua edo programa gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak bere gain hartzea.

- b) **Diru-laguntzaren** xede den programa ez aldatzea, Gizarte Kohesioaren Arloaren alde zureko adostasunik gabe.
- c) **Emandako** diru-laguntzaren erabilera egiaztatzeko eta jarraipena egiteko Gizarte Kohesioaren Arloak egokitzen jotzen dituen jarduketak erraztea.
- d) **Diru-laguntza** justifikatzea eta 4 urtez jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea.
- e) **Publizitatean** eta komunikazio-egintzetan adieraztea proiektua, programa edo jarduerak Getxoko Udalaren laguntzarekin egiten dela (logotipoa erabiliz, kolaboratzaile epigrafearekin).
- f) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera inklusiboa, ez-sexista eta diskriminatzailea erabiltzea.
- g) **Dokumentazio** eta publizitate guztietan emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak eta/edo arrazistak bultzatzen dituzten irudiak saihestea, eta berdintasunaren eta kulturartekotasunaren balioak dituen irudia sustatzea.
- h) Hizkuntza-normalizazioko irizpideak aplikatzea proiektu, programa edo jarduerarekin lotutako publizitatean eta komunikazioan, diru-laguntzari lotutako kartel, publizitate eta komunikazio guztiak elebidunak izan daitezen.
- i) **Diruz** lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri izan bezain laster jakinaraztea, eta, betiere, jasotako funtsen erabilera justifikatu aurretik.
- j) Getxoko Udalarekiko eta Ogasun Publikoarekiko (Foru edo Estatuko) zerga-betebeharrak egunean izatea, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere, bai diru-laguntza eman aurretik bai ordaindu aurretik.
- k) Hizkera eta irudi inklusiboak erabiltzea, ez sexistak, ez diskriminatzaileak, ez horrelako rolak erreproduzitzen dituztenak.
- l) Justifikazio-memoretan jasotzea sexuaren arabera bereizitako informazioa, bai eta guztizkoarekiko ehunekoa ere, erakundea osatzen duten kideen kopuruari dagokionez zein entitateak egindako jardueretan izena eman duten parte-hartzaileei dagokienez, haien gizarte-eragina ezagutzeko.

Erakunde onuradunen betebeharra da ezarritako betebeharrak betetzea diru-laguntzaren indarraldi osoan, eskabidea aurkezteko azken egunetik aurrera.

Betebehar horiek, berdintasunaren arlokoak barne, betetzen ez badira, Getxoko Udalak neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu ahal izango du eta, hala badagokio, emandako diru-laguntza murrizteko edo baliogabetzeko.

5. artikulua: AURREKONTU KREDITUAK

Dirulaguntzen deialdi honetarako **gehieneko kreditu** erabilgarria **238.056 eurokoa** da, eta 02000 23100 4810000 partidari egozten zaio, dirulaguntzen ildoen artean banatzeko.

Ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeek **eskabide bakarra** aurkeztu dezakete **1. ildoan**, eta **proiektu bakarra 2. ildoan**.

5.1 Gehieneko zenbatekoa erakunde eta eskabide bakoitzeko:

- Deialdiak muga bat ezarri du ildo eta/edo azpi-ildo bakoitzeko.
- **Erakunde bakoitzak 12.000 € jasoko ditu gehienez**, aurkezteko eskubidea duen ildo guztiak batuta. Muga hori ez da kontuan hartuko partzuergoan aurkeztzen bada.
- **1. ildoan** zein **2. ildoan** aurkeztutako gastuen **% 100 eskatu daiteke**, betiere ildo bakoitzean ezarritako muga gainditzen ez bada. Kasu guztietan, **aurkeztutako aurrekontuaren % 100 gauzatuko eta justifikatuko da**.

- Deialdi espezifikoan ezarritako irizpideak aplikatu ondoren diruz lagundu daitekeen edozein ildotan kreditua geldituz gero, beste ildoetako beharrianak asetzeko erabili ahal izango da.

Honako taula honetan, dagoen kreditua, dirulaguntzen ildo bakoitzaren mugak eta finantzaketa muga laburbildu dira:

Ildoa/ Línea	Aurreikusitak o kreditua/ Crédito previsto	Eskari eta entitate bakoitzeko gehienezkoa emakida/ Concesión máxima por entidad y solicitud	Emakida Erregimena/ Régimen Concesión	Finantzaketa muga/ Límite financiación
1	132.720€	3.000 € > 3 urteko erakundeak/ entidades > 3 años 1.000 € < 3 urteko erakundeak/ entidades < 3 años	Hainbanaketa /Prorrata	Aurkeztutako proiektuaren % 100 100% del proyecto presentado
2	2_A: 95.336 €	9.000 € Banaka aurkezten diren erakunde getxotarrak/ entidades de Getxo que se presenten a título individual 20.000 € Erakunde Getxotarrak Partzuergoan aurkeztutako proiektu bakoitzeko / por proyecto presentado en consorcio entre entidades de Getxo.	Norgehiagoka /concurrancia competitiva	Aurkeztutako proiektuen % 100 100% del proyecto presentado
	2_B: 10.000€	2.000 € erakunde ez getxotarrak entidades de fuera de Getxo		
GUZTIRA TOTAL	238.056 €			

6. artikulua: DIRULAGUNTZEN ILDOAK

6.1: DIRULAGUNTZEN 1. ILDOA: GETXOKO ERAKUNDEEN MANTENTZEA, FUNTZIONAMENDUA ETA SENDOTZEA

6.1.1.- Xedea:

Ildo honek asoziazionismoa sustatu eta indartu nahi du, eta Gizarte Kohesio arloari lotutako erakunde sare zabala sortzen lagundu. Honako **erakunde** hauek jaso ahal izango dute dirulaguntzen ildo hau:

- **egoitza soziala edo ordezkaritza Getxon** dutenak
- **Getxoko Udalaren erregistroan erregistratuta** daudenak

Honako hauen **gastuak** lagundu ahalko dira diruz:

1. Erakundearen mantentze-lan arruntak:

- **Langileak** (nomina eta gizarte segurantzak, aseguruak, dietak...).

- **Gastu arruntak** (erakundearen egoitzari edo ordezkaritzari dagokion lokalaren alokairua, garbiketa, hornigaiak...).

2. Erakundearen funtzionamendua, sendotzea eta jarduerak, barne hartuta proiektutzat jotzeko behar adinako garrantzirik ez duen eta jarduerarako onartutako aurrekontu osoa 5.000 eurotik gorakoa ez den ekintza/jarduera oro. Atal honetan honako hauek sartzen dira:

- Erakundea sustatzeko **informazioa** (urteko memoriak, liburuxkak, kartelak, jardunaldiak, web-orriak edo sare sozialak) eta **dibulgazioa** (publizitatea eta propaganda).
- Boluntarioak **prestatzea eta lortzea** (ikastaroak, mintegiak...).
- Erakundeen **kudeaketa hobetzearekin** edo **bazkideen nahiz hartzaileen gaikuntza** handitzearekin lotutakoak: erakundearen gogoeta estrategikoak; kudeaketa-, berdintasun- eta/edo komunikazio-planak; esku hartzeko material eta baliabide espezifikoak atontzea.
- Elkartekideei edo erakundearen arloari zuzendutako **esku hartzeko ekintza/jarduera espezifikoak**.

6.1.2.- Ildo honetarako **aurreikusi den kreditua: 132.720€.**

6.1.3.- Emakidaren erregimena: hainbanaketa

6.1.4.- Gehieneko zenbatekoa erakunde bakoitzeko:

- **3.000 euro**, baldin eta erakunde gisa hiru urte edo gehiago erregistratuta badaramatzate edota azken hiru urteotako batean Gizarte Kohesio arloko edozein zerbitzuren finantzaketa jaso badute.

Zenbateko hori **2.500 eurokoa** izango da erakundea kudeatzeko udal lokal bat esleitura duten erakundeentzat.

- **1.000 euro**, baldin eta erakunde gisa hiru urte baino gutxiago erregistratuta badaramate edota azken hiru urteotako batean ez badute jaso Gizarte Kohesio arloko edozein zerbitzuren finantzaketa.

Zenbateko hori **750 eurokoa** izango da erakundea kudeatzeko udal lokal bat esleitura duten erakundeentzat.

Gehienez ere aurkeztutako **proiektuaren % 100 emango da**, 1. ildoak markatu duen gehieneko mugaraino. Dirulaguntzaren zenbatekoa kontuan hartuta, mantentze-, funtzionamendu- eta sendotze-gastuetarako 20.000 € zenbatuko dira gehienez.

Gauzatutako gastu osoaren % 100 justifikatu beharra dago, zehaztutako mugarekin.

6.2: DIRULAGUNTZEN 2. ILDOA: INTERESEKO PROIEKTUAK GIZARTE KOHESIOAREN EREMUAN

6.2.1.- Xedea

Ildo honen asmoa da deialdi honen xedean zehaztutako **Gizarte Kohesio arloko jarduketa eremuetarako intereseakoak diren proiektuak** babestea eta sustatzea.

Dirulaguntzen ildo honetan jarduera edo proiektu hauek sartzen dira:

1. **Garapenerako lankidetzari eta gizarte eraldaketarako hezkuntzari buruz sentsibilizatzea.**
2. **Ikuspegi feminista** eta emakumeen eta gizonen arteko **berdintasuna sustatzea** eta indarkeria matxista desagerraraztea.
3. Harreraren, aukera-berdintasunaren eta/edo topaguneak sortzearen bidez herritar anitzen arteko **kulturartekotasuna sustatzea.**
4. **Aisia hezitzailea eta/edo gazteen interesekoa.**
5. Pertsonen **autonomia, babesa eta gizarteratzea** higiaraztea.
6. **Gizarte zerbitzuen eta udaleko edo udalez gaindiko beste gizarte politika batzuen arteko integrazio intersektional** berria eraikitzea sustatzea, edo beste sektore-eremu unibertsal batzuk barne hartzen dituztenak, hala nola zahartze aktiboa eta mendekotasunen prebentzioa.
7. **Dibertsitate funtzionalari eta/edo desgaitasunari babesa ematea**, arretaren, parte-hartzea sustatzearen, autonomiaren eta/edo sentsibilizazioaren ikuspegitik.

Ez dira diruz lagunduko deialdi honen xedearekin bat ez datozen jarduerak edo beste erakunde publiko batzuen edo udaleko beste arlo batzuen eskumenekoak direnak.

Ildo honetan, honako gastu hauek lagunduko dira diruz:

- **Zuzeneko gastuak** (proiektua garatzeko materialak, langileen gastuak, kanpoko kontratazioak, proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren bidaiak eta egonaldiak, publizitatea eta itzulpenetako gastuak).
- **Zeharkako gastuak**, gehienez ere Getxoko Udalari **eskatutako dirulaguntzaren balioaren % 5.**

2. ildoko proiektuetara aurkezten diren erakundeek bermatu behar dute aurkeztutako proiektua oso-osorik Getxon garatuko dela eta/edo gutxienez proiektuaren hartzaileen % 50 getxotarrak direla.

Gehienez ere, aurkeztutako proiektuaren % 100 eskatu ahal izango da.

6.2.2- Azpillerroak

2.A Egoitza soziala edo ordezkaritza Getxon duten eta Getxoko erakundeek erregistroan inskribatuta dauden erakundeak

Ildo honetarako **aurreikusi den kreditua: 95.336 €**

Dirulaguntzak emateko erregimena norgehiagoka da, 11. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak aplikatu ostean.

Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, balorazio irizpideen arabera eskabideen arteko lehentasuna ezartzeko. Dirulaguntzak puntuazio handiena lortu dutenei soilik esleituko zaizkie, betiere deialdian kreditu erabilgarriaren barruan ezarritako mugarekin.

- **Erakunde bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 9.000 €**
- **Partzuergoan aurkeztutako proiektu bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 20.000 €**

2.B Egoitza soziala edo ordezkaritza Bizkaiko beste udalerriren batean duten erakundeak

Lerro honetarako **aurreikusitako kreditua: 10.000 euro.**

Emakida-erregimena hainbanaketa da.

Erakunde bakoitzeko gehieneko zenbatekoa: 2.000 euro.

Bi azpi-ildoetan **justifikatu behar da proiektuan gauzatutako gastu osoa.**

7. artikulua: DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN ETA DIRUZ LAGUN EZIN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, oker bada ere, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko behar-beharrezkoak direnak eta diru-laguntzak emateko ebazpenetan ezarritako epean egiten direnak.

Emandako diru-laguntzaren % 100 ere egotzi ahal izango zaie langile-gastuei.

Zeharkako gastuei egozteko gehieneko ehunekoa % 5 izango da, eta oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera egin beharko da, eta, nolanahi ere, kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkion neurrian.

Gastu zuzentzat hartuko dira jarduera edo proiektu jakin batekin zehazki identifika daitezkeenak. Diruz lagundutako jarduera zehatzarekin zuzenean lotutako kostuak dira, hala nola, proiektua gauzatzeko berariaz kontratatutako langileen ordainsariak, diruz lagundutako jardueran bakarrik erabilitako material didaktiko eta/edo espezifikoak, diruz lagundutako jarduera garatzeko erositako ekipamendua, jarduerarako nahitaezko aseguruak, hala nola diruz lagundutako proiektuaren jarduera jakin batekin zuzenean lotutako arriskuak estaltzeko berariazko erantzukizun zibileko aseguruak, etab.

Zeharkako kostutzat hartuko dira proiektu batekin zuzenean lotu ezin direnak, baina diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak direnak, hala nola, erakundearen funtzionamendu orokorrarekin zerikusia duten kostuak, lokal iraunkorra alokatzea helburu askotarako erabiltzen denean eta ez bakarrik diruz lagundutako jarduerarako, hornidurak (elektrizitatea, ura, etab.), mantentze-gastuak, erabilera orokorreko bulego-materiala, administrazio-gastu orokorrak (adibidez, diruz lagundutako jarduera espezifikoari zuzenean esleitu ezin zaizkion garbiketa- edo segurtasun-zerbitzuak), jarduera garatzeko nahitaezkoak ez diren aseguruak (adibidez, erakundearen jarduera guztiak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruak), etab.

Ondasun inbentariagarriak diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira, baldin eta proiekturako behar bezala arrazoitzen bada.

Gastu hauek ezin dira diruz lagundu: banku-kontuetako interes zordunak, zorpekoei lotutako komisioak, berandutzeagatiko errekaratu eta interesak, banku-zigorak, administrazio-zehapenak eta zehapen penalak, prozedura judizialetatik eratorritako gastuak, eta zeharkako zergak, baldin eta berreskura badaitezke.

8. artikulua: AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko irailaren 1ean hasi eta 2026ko irailaren 20an amaituko da, biak barne.

Eskabideak, 2021eko abenduaren 23ko osoko bilkuran onartutako Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoaren eta 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuraren erabakiagatik aldatuta eta, 2025eko otsaila 7ko BAO on argitaratua arabera, Administrazio Elektronikokoaren Bulegoaren bidez aurkeztuko dira www.getxo.eus webgunean, deialdi honen bidez onartutako eredu normalizatuetan.

Deialdia eta eskabide-inprimakiak www.getxo.eus webgunean kontsultatu ahal izango dira.

9. artikulua: BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA.

Administrazio Elektronikoko Bulegoaren bidez aurkeztu beharko da:

- a. **Eskabide normalizatua (0. ERANSKINA).** Ofizioz eskatuko da Bizkaiko Foru Ogasunak edo beste edozein foru- edo estatu-ogasun publikok eta Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria (betiere erakunde eskatzaileak horren kontra egiten ez badu), egiaztatze erakundeak egunean dituela Bizkaiko Foru Ogasunarekiko edo beste edozein foru- edo estatu-ogasun publikorekiko zerga betebeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere. Kontra egonez gero, erakundeak dokumentazioa aurkeztu beharko du. Gainera, udalak ofizioz egiaztatuko du erakunde eskatzaileak udalarekin zerga zorrik ez duela.
- b. Erakundearen **IFKren fotokopia.**
- c. Erakundearen **estatutuen fotokopia.**
- d. **Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroko, udal erregistroko edo dagokion erregistroko inskripzio-ziurtagiriaren fotokopia;**
- e. **Erantzukizunpeko adierazpena,** Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testuategina onetsi duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko (deialdi honen 3. artikulua betetzea).

Eskabidea egin **aurreko bi urteetan antzeko** dirulaguntza jaso duten erakunde guztiek **ez dute aurkeztu beharko jada entregatutako dokumentaziorik**, baldin eta aldaketarik jasan ez bada eta eskabidean berariaz hala adierazten bada.

Aurreko baldintzez gain:

- a) 1. ildoan, **erakundeari buruzko datuak (I. ERANSKINA);**
- b) 2. ildoan, **erakundearen proiektua (II. ERANSKINA);**
Proiektua II. eranskinean atxikitako formatuan soilik entregatuko eta ez ditu 30 orriak gaindituko (A4, 1,5eko lerroartea eta Arial 12 letra). Ez dira irakurriko ez ebaluatuko luzera hori gainditzen duten orriak.
- c) **Proiektua gauzatzeko ikastetxeren, erakunderen edo kolektiboren baten parte-hartze aktiboa behar bada,** ikastetxeko zuzendaritzaren, erakundearen edo inplikaturako kolektiboen gutun bat erantsi beharko da, non proiektuan parte hartzeko interesa dutela jakinaraziko duten.

Udalak, kasu bakoitzaren arabera, beste edozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izango dio erakunde eskatzaileari.

10. artikulua: BALORAZIO IRIZPIDEAK

2. ildoko proiektuen balorazioaren kasuetan aplikatu behar dira.

Gehienez ere, 100 puntu lortu ahal izango dira. Proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte balorazio irizpideetan, eta horietatik gutxienez zazpi zeharkakotasunean lortuko dira.

Erakundeek idatziz jaso beharko dituzte balorazioan kontuan hartzea nahi duten alderdi guztiak, eta, adierazitako kasuetan, horiek frogatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

Balorazio irizpideak:

1. Proiektuaren kalitate teknikoa: 33 puntu guztira

- Helburuen, jardueren eta emaitzen arteko koherentzia (gehienez 10 puntu)
- Proiektuaren argitasuna eta zehaztasuna (gehienez 3 puntu)
- Proiektuan erabilitako metodologia (gehienez 6 puntu)
 - talde hartzailearekiko egokitasuna eta zer testuingurutan egingo den (gehienez 3 puntu)
 - beharrezko bitartekoak eta eskakizun teknikoak (langileak, materialak). (gehienez 3 puntu)
- Jarraipen sistema eta adierazleak txertatzea (gehienez 6 puntu)
- Berrikuntza. Dirulaguntzen ildo honen xedea lortzen lagunduko duten jarduera berritzaileak (gehienez 3 puntu). Berrikuntzatzat jotzen ditugu:
 - Udalerrian orain arte garatu ez diren proiektuak.
 - Garatzeko metodologia berritzaileak proposatu ditu.
 - Aurretik garatutako proiektuei dagokienez hobekuntzak eman ditu.
- Euskararen erabilera. Jardueren % 50 euskaraz egitea proposatu du (5 puntu).

2. Bideragarritasuna: 11 puntu guztira

- Aurreko beste esperientzia edo azterlan batzuekin alderatzea (gehienez 2 puntu). Dokumentu bidez eta beste esperientzia batzuen emaitzetan oinarrituta justifikatuko da proposatutako proiektuaren egokitasuna eta bideragarritasun teknikoa.
- % 40tik gorako kofinantzaketa edo autofinantzaketa (gehienez 2 puntu).
- Aurrekontuaren doikuntza: partidak banakatzea aurkeztutako aurrekontuan, proformako fakturak edo aurrekontuak gehitzea (gehienez 4 puntu).
- Erakunde-bideragarritasuna (3 puntu guztira).

Proiektua garatzean autonomia-, foru- edo toki-administrazio batek parte hartu izana administrazio horrek sinatutako abal baten bidez ziurtatuko da.

3. Hartzaileak: 9 puntu guztira

- Kalteberatasun egoeran dauden hartzaileak babesteko ekintzak sustatzen ditu (gehienez 2 puntu).
- Hartzaileen bizi kalitatea hobetzea ekarri dezaketen hezkuntza alderdiak eta/edo autonomia pertsonaleko alderdiak sustatzen ditu (gehienez 2 puntu).
- Diruz lagundutako ekintzaren hartzaileen parte-hartze aktiboa sustatzea (gehienez 2 puntu).
- Proiektua garatzean erreferentziazko erakundeen partaidetza bermatua edo hartzaileen interesa (gehienez 3 puntu). Proiektua gauzatzeko ikastetxeren, erakunderen edo kolektiboren baten parte-hartze aktiboa behar bada, ikastetxeko zuzendaritzaren, erakundearen edo inplikaturako kolektiboen gutun bat erantsi beharko da, non proiektuan parte hartzeko interesa dutela jakinaraziko duten.

4. Ibilbidea eta sareko lana: 9 puntu guztira

- Erakundeak azken bost urteotan Getxon proiektu edo jarduera bat garatu izana honako esparru hauetako batean: garapenerako lankidetzak, berdintasuna, immigrazioa eta kulturartekotasuna, gazteria edo gizarte zerbitzuak (gehienez 3 puntu).
- Antzeko proiektuak garatzean erakundeak duen esperientzia egiaztatua (gehienez 3 puntu).
- Erakundeak azken bi urteotan udalerriko sareetan, foroetan edo kontseiluetan parte hartu izana (gehienez 3 puntu).

5. Inpaktua: 8 puntu guztira

- Aurkeztutako proiektuak baliabide teknologikoen bidez hedatzeko neurriak jaso ditu, eta neurri horiek proiektuak inpaktu sozial handiagoa izatea ekarriko dute (gehienez 3 puntu).
- Jarduerak edo proiektuak eragindako ondorioen iraunkortasun maila (gehienez 2 puntu).
- Boluntarioek proiektua edo jarduera garatzean parte hartzea. Boluntarioen kopurua eta bete beharreko funtzioak zehaztu beharko dira. (gehienez 3 puntu).

6. Zeharkakotasuna: 30 puntu guztira

- **Genero ikuspegia** txertatzea (gehienez 10 puntu):
 - o Sexu/genero aldagaia sistematikoki sartu da proiektuaren fase guztietan: diagnostikoa, diseinua, plangintza, betearaztea, jarraipena eta ebaluazioa (gehienez 2 puntu).
 - o Intersektionalitatea kontuan hartu du, eta analisietan bestelako aldagaiak gehitu ditu, hala nola adina, sexu- eta genero-identitatea, etnia, jatorria, migratzailea/errefuxiatua izatea, klase soziala edo dibertsitate funtzionala (gehienez 2 puntu).
 - o Esku hartu nahi duen errealitatea aztertu du, bai eta errealitate hori gizonentzat eta emakumeentzat zer zentzutan den desberdina ere (gehienez 2 puntu).
 - o Emakumeentzako eta gizonentzako berariazko helburuak ezarri ditu, haien premien arabera (gehienez 2 puntu).
 - o Ekintza positiboko neurriak hartu dira emakumeek proiektuan parte hartu dezaten bultzatzeko (gehienez 2 puntu).
- Proiektua garatzeko duen taldeak prestakuntza espezifiko izango du (25 orduetik gorakoa), deialdi honen xede diren alorretako batean (gehienez 6 puntu):
 - o Prestakuntza espezializatua alor batean (2 puntu).
 - o Prestakuntza espezializatua bi alorretan (4 puntu).
 - o Prestakuntza espezializatua hiru alor edo gehiagotan (6 puntu).
- Proiektuaren planteamenduak **zeharkakotasuna txertatzeko funtsezko alderdiak** jaso ditu (gehienez 5 puntu):
 - o Udalerriaren aniztasuna kontuan hartu du eta errealitate horren gaineko neurri espezifikoak proposatu ditu (analisi-, diseinu-, betearazpen- edo ebaluazio-faseetan) (puntu 1).
 - o Estereotipo sexistak, estereotipo negatiboak eta pertsonetikiko aurreiritziak desaktibatzekeko estrategiak garatzen ditu (gehienez puntu 1).
 - o Bateragarritasun neurriak eta irisgarritasun bermeak kontuan hartu ditu, hartzaileen parte-hartzea bultzatzeko (gehienez puntu 1).
 - o Rolak eta zereginak ekitatez banatzea sustatzen du, rol tradizionalak hausteko eta/edo erantzunkidetasuna sustatzeko (gehienez puntu 1).
 - o Tokiko erantzunak planteatu ditu desberdinkeria globalen kausetan eragiten laguntzeko (gehienez puntu 1).

- Proiektuaren/jardueraren bidez lortu nahi diren emaitzak: (gehienez 9 puntu).
 - o Berdintasunik eza sortzen duten egoerak prebenitzean lan egiten du (gehienez puntu 1).
 - o Ekintzaren hartzaille diren kolektiboen parte-hartzea eta inplikazio soziopolitiko eta/edo asoziazionismoa sustatzen ditu (gehienez puntu 1).
 - o Getxotarrak honako gai hauetan sentibilizatzen laguntzen du: berdintasuna, indarkeria matxistaren prebentzioa, hezkidetza, inklusioa, harrera, lankidetza, giza eskubideak, bakerako hezkuntza eta/edo kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza, besteak beste (gehienez puntu 1).
 - o Emakumeen ahalduntze prozesu indibidualak eta kolektiboak sustatzen laguntzen du (gehienez puntu 1).
 - o Kulturarteko gaitasuna eta kontzientzia antirrazista areagotzea sustatzen du (gehienez puntu 1).
 - o Elkarreragin positiboa eta errealitate anitzen arteko topaguneak sustatzen ditu (gehienez puntu 1).
 - o Proposatutako ekintzen bidez Getxo udalerrian elkartasunaren balioa bultzatzen du (gehienez puntu 1).
 - o 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuetakoren bat erdiesten laguntzen du (gehienez puntu 1).
 - o Berdintasun helburuak erdiestearekin lotutako ebaluazio adierazleren bat barne hartu du (gehienez puntu 1).

11. artikulua: BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Bi eskabideren edo gehiagoren arteko azken puntuazioan berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren, dirulaguntzaren esleipena edo erabilgarri dauden funtsak esleitzeko lehentasuna erabakitzeko:

1. **Kalitate teknikoa:** Proiektuaren kalitate teknikoaren atalean lortutako puntuaziorik handiena.
2. **Zeharkakotasuna:** Ikuspegiaren eta zeharkako irizpideen balorazioan lortutako puntuaziorik handiena.
3. **Proiektuaren bideragarritasuna:** Bideragarritasun ekonomiko eta operatiboari buruzko irizpideetan lortutako puntuaziorik handiena.
4. **Zozketa:** Aurreko irizpideak aplikatu ondoren berdintasuna mantentzen bada, zozketa publikoa egingo da.

12. artikulua: IZAPIDETZEA, EBAZPENA ETA ERREKURTSOAK

Eskabideak birformulatzea: 2. ildoko eskabidea birformulatzea eskatuko da, baldin eta **eman beharreko zenbatekoa eskatutako proiektuaren zenbatekoaren % 75 baino txikiagoa bada eta proiektuaren finantzaketa bermatuta ez badago**. Kasu horietan, instrukzio organoak erakundeari jakinaraziko dio bost egun balioduneko epean proiektua birplanteatu beharko duela, konpromisoak eta baldintzak emandako dirulaguntzara egokitzeko, betiere dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatuz; edo, bestela, dirulaguntzari uko egin beharko diola. Berariazko erantzunik ez balego, instrukzio organoak eskaeran atzera egin dela ulertuko du.

Instrukzio organoa, kide anitzeko organoa eta tokiko gobernu batzordea:

Dirulaguntzak emateko instrukzio organoa Gizarte Kohesio arloko teknikariek osatuko dute, hala izendatuz gero.

Instrukzio organoak txosten tekniko bat emango du eskatutako jardueren interesa egiaztatzeko, Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorrean oinarrituta (2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkurak onetsia eta 2022ko martxoaren 16ko 52. zenbakiko BAO on argitaratua eta 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez aldatua, hots 2025eko otsailaren 7ko BAO on argitaratu zenaren bidez aldatua) eta deialdi honetan ezarritakoaren arabera.

Erabaki proposamena kide anitzeko organoak igorriko dio Tokiko Gobernu Batzordeari, eta organoa honako hauek osatuko dute:

ORGANOKO BURUA:

Alkatea.

ORGANOKO KIDEAK:

- Ekonomia Sustapena Arloko eta Informazio eta Sustapen Turistiko Zerbitzuko eta Bide Publikoa Kudeatzeko Zerbitzuko arduraduna.
- Hirigintza-plangintza, Kudeaketa eta Disziplina Arloko eta Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza Arloko arduraduna.
- Idazkari nagusia.
- Kontu hartzaile nagusia.
- Dirulaguntzaren xede den gaian espezializatutako teknikaria.

IDAZKARIA:

- Idazkaritza Nagusiko teknikaria.

Tokiko Gobernu Batzordea izango da diru-laguntza hauek ebazteko organo eskuduna.

Ebazpena emateko gehieneko **epea** 6 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, diru-laguntzaren eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Diru-laguntzen publizitatea: emandako diru-laguntzak diru-laguntzen oinarri nazionalen argitaratuko dira, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikulua, Sektore publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatua.

Errekurtsoak: diru-laguntza ematea erabakitzen edo ukatzen duen ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurrean, erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote tokiko gobernu-batzarrari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo zuzenean aurkaratu ahal izango dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Diru-laguntzak ordaintzea: diru-laguntzaren ordainketa aurreratua izango da, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko beharrezko finantzaketa gisa.

Ordainketa ez da gauzatuko izapidetzen ari den egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu.

Gainfinantzaketa: orain deitutako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede bererako emandako beste edozeinekin, eta inola ere ezin izango da gainfinantzaketarik egon, hau da, diruz lagundutako guztizko zenbatekoak, beste erakunde batzuekin batera, ezin izango du jardueraren guztizko kostua gainditu.

Diru-laguntzak pilatzeagatik gainfinantzaketarik gertatuz gero, Getxoko Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du erakunde onuradunak, hark emandako zenbatekoaren portzioan eta finantzatutako zenbateko osoarekiko.

13. artikulua: DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Jasotako diru-laguntza Administrazio Elektronikoen Bulegoaren bidez justifikatu beharko da, www.getxo.eus webgunean.

1. lerroan, diruz lagundutako gastuak, jarduerak/proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra arte egin ahal izango dira. Justifikazioa aurkezteko azken eguna 2026ko otsailaren 28a izango da.

2. lerroan, diru-laguntza 2026ko urtarrilaren 1etik hasita eta 12 hilabeteko gehieneko epean gauzatu ahal izango da, diru-laguntza emateko ebazpena ematen denetik zenbatzen hasita, eta jarduera amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean justifikatu beharko da.

Diruz laguntzeko lerro guztietan gauzatutako guztizko gastuaren % 100 justifikatu beharko da.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) 1. lerroan, justifikazio-memoria, III. eranskinaren arabera.
- b) 2. lerroan, justifikazio-memoria, IV. eranskinaren arabera.
- c) Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia dela-eta editatu edo argitaratu diren liburuxka, kartel, liburu, bideo, euskarri digital (cd, dvd, pendrive...) bakoitzaren ale bat.
- d) Beste edozein erakunde publiko edo pribatu beste laguntza edo baliabide batzuekin batera finantzatu badu jarduera, justifikazioaren zati gisa egiaztatu beharko da funts horiek bidezkoak direla eta diruz lagundutako jarduerari aplikatu zaizkiela. Hori, gainera, III. eta IV. eranskinetan jasotako balantze ekonomikoaren diru-sarreraren atalean jasoko da.
- e) Justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli badira, itzulketa horren ordainketa-gutuna.

IV. eta V. eranskinetan agertzen den justifikazio-kontu sinplifikatuen zerrendatutako gastuen egiaztagiria ez dira justifikazioarekin batera aurkeztu behar (hurrengo paragrafoan zehazten diren salbuespenak izan ezik), baina jatorrizkoak gorde egin beharko dira. Getxoko Udalak egokitzen jotzen dituen egiaztagiria eskatu ahal izango dizkio erakundeari, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko.

Langile-gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da, honako formula hauetako baten bidez, betiere dagokion frogagiriarekin batera:

- **Nominak**, ordainagiriekin batera;
- **Kotizazioen** likidazio-agiria, ordainagiriekin batera;
- **110 eta 190 ereduak**, ordainagiriarekin batera;

Getxoko Udalak diru-laguntza gisa emandako zenbatekoaren %10etik gorako zenbatekoa duten gastu guztien egiaztagirak ere aurkeztu beharko dira.

Justifikazio-kontuan zerrendatutako gastuen frogagiri gisa onartuko dira merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak diren dokumentuak. Hala ere, fakturarik lortu ezin denean, erosketa-tiketak onartuko dira salbuespen gisa, baldin eta:

- Establezimenduaren izena edo sozietatearen izena.
- IFK zenbakia.
- Erosketaren edo zerbitzua ematearen data.
- Tiket-zenbakia.
- Aplikatu beharreko BEZaren %.
- Erositako produktuaren edo zerbitzuaren deskribapena.
- Zenbatekoa, guztira.

Ez dira onartuko aplikazio mugikorretatik edo mahaigaineko aplikazioetatik lortutako banku-transferentzien pantailak. Banketxeak sortutako ordainagiri ofiziala aurkeztu beharko da

Diruz-lagundutako proiektuaren justifikazioa adierazitako epean aurkezten ez bada, emandako diru-laguntzaren itzulketa kudeatuko da.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 42. artikulua aplikatuz, itzulketa-prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

Erakunde onuradunak, horretarako errekerimendua egin baino lehen, jasotako laguntza osoa edo zati bat borondatez itzultzeko eskatu ahal izango du. Eskabide hori ebatzi eta erakundeari jakinaraziko zaio, diru-sarrera egiteko modua eta epea adierazita.

Hori guztia Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua aplikatuz.

14. artikulua: "DIRU-LAGUNTZAK ERAKUNDE KOLABORATZAILEEI" TRATAMENDUAREN INFORMAZIO KLAUSULA

Zure datuak "DIRU-LAGUNTZAK ERAKUNDE KOLABORATZAILEEI" tratamenduan sartzen dira; horren arduraduna Getxoko Udala da (Foruak kalea 1, gizartez@getxo.eus) eta helburua du gizarte zerbitzuen barruan jarduerak garatzen dituzten erakundeentzako diru-laguntzak kudeatzea. Tratamenduaren oinarri juridikoa arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzea da. Datuak diru-laguntzen datu-base orokorrari eman ahal izango zaizkio. Titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus (datuak babesteko ordezkaria) helbidera idatzizko jakinarazpen bat bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat sartuta, edo Udalaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen kudeaketa elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak